

sendabidea

Haurtxoen kolikoei nola aurre egiten

Jaioberrien artean, oso ohikoa da lehen hiru hilabeteetan haurtxoek kolikoak izatea. Koliko horiek zergatik izaten diren ez dakite oraindik. Horrelakoetan, haurrek min handia izaten dute sabelaldean, eta oso artega jartzen dira. Hori saihesteko edo, behintzat, gutxitzeko, jarri haurtxoari arrautza bat sabelean,

epela dagoela (eskuekin berotu), eta igurtzi zirkulu txikiak eginez, minutu batzuetan. Hala, sabelaldeko giharrak lasaituko dira, haurtxoa lasaitu egingo da.

Bestalde, haurtxoari koilara txiki bat anis ur eman ahal zaio, eta horrek ere lagunduko dio lasaitzen kolokoa duenean. Azkenik, gerezien zutarren belar ura ere har dezake, koilara txiki batean.



EGUNKARIA

Australia'. Bihar, Iñaki Begotxearen eskutik, arratsaldeko 19:30ean, Okendo Kultur Etxean.

'Boys don't cry' filma. Otsailaren 23an, arratsaldeko 19:30ean, Okendo Kultur Etxean.

EIBAR. 'El halcon ingles' filma. Bihar, arratsaldeko 17:30ean eta 21:00etan, Hezkuntza Esparruan.

ELGOIBAR. 'Orfeu' Brasilgo filma. Gaur, iluntzeko 21:30ean, Herriko antzokian.

ERMUA. 'Leo' filma. Bihar, iluntzeko 22:15ean, Ermua zineman.

GETXO. '¿Que es la vida?' filma. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:00etan, Getxo Antzokian.

GERNIKA. 'Sahara, viento de libertad' diaporama. Bihar, arratsaldeko 20:00etan kultur etxean.

IRUN. 'Oriente es oriente. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Amaia Kultur Zentroan.

LEGAZPI. 'Under the sun'. Bihar, iluntzeko 21:30ean, Latxartegin.

MUTILAGOITI. 'Los Palomos' filma. Otsailaren 23an, gaueko 22:00etan, Aranguren araneko kultur etxean, Amadis de Gaularen eskutik.

'Laurel eta Hardy zerura' filma. Otsailaren 23an, gaueko 22:00etan, Aita Mari Aretoan, Bederen 1en eskutik.

OÑATI. 'El viento nos llevara' filma. Otsailaren 22an, arratsaldeko 20:00etan Santa Anan.

ZIZUR NAGUSIA. 'Estacion central de Brasil'. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Social Zineman.

ZUMAIA. 'Big Wall in Cochamo' diaporama. Gaur, Josu Ulaziaren eskutik, arratsaldeko 19:30ean, Foronda Kultur Etxean, Zumaia VII. Mendi Astearen barruan.

'La ducha' filma. Bihar, gaueko 22:15ean hasiko da, Aita Marin.

hitzaldiak

BURLATA. Itoizi buruzko hitzaldia. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Axularren, Patxi Gorraizen eskutik.

DONAPALEU. 'Erleen mundu hori. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Zabaliken, Manex Gogoan taldeak antolatuta.

DONOSTIA. 'Kosovoko krisia

Diaporama

'Big Wall in Cochamo' Zumaiaiko kultur etxean



JOSU ULAZIA

Zortziehun metroko pareta bertikalean zintzilik

Xabier Martin | DONOSTIA

Egunerokotasunetik ihesi, paradisuaren bila joan: horixe da hainbaten ametsa, gehienetan betetzen ez dena. Josu Ulaziak, ordea, bete du ametsa. Josu Ulaziak topatu du halako leku bat; paradisuak, bederen, Cochamo ingurunearen antza behar du izan, haren deskribapenari kasu eginez gero. Gaur, *Big wall in Cochamo* izenburua jarri dion diaporama eskainiko du Zumaia VII. Mendi Astearen barruan.

«Txileko Santiagotik 1.500 bat kilometrora dago Cochamo herria, Ralungo Badiatik gertu», adierazi du Ulaziak. Antza, basoak, mendiak eta erreka garbiak ere ez dira falta bertan. Hala ere, Ulazia eta bere hiru espediziokideak ez zituen naturaren altxor horrek erakarri Cochamora; ez, behintzat, oinarrian. Izan ere, ingurune horretan, sekulako pareta dago eskalatzeko, *big wall* izena hartu

duena, eta hura igotzeko erronkari erantzunez joan ziren haraino lau espediziokideak.

«800 bat metro luze da pareta, granitokoa, baina granito grisekoa. Urra-duririk aurkitu ahal da, bainaitsuak, eta zailtasunak nabarmenak dira. Hots, paretak lan handia eskatzen du», azaldu du Josu Ulaziak. Espedizioak 12 egun iragan zituen han, gora eramango zuen ibilbide bat zabaltzeko lanetan. Haien aurretik egon da pareta horretan espediziorik, baina oso-osos gutxi izan dira.

Itzultzeko asmorik ote duen galde-tuta, bete den amets bat gogoratzen duenaren jarrera hartuta, «asmoak beti daude hor», erantzun du Ulaziak, «egitasmo zehatzik ordea, ez».

Gaur, espedizioaren berri emanen du Ulaziak, 35-45 minutuan, «duzeago eginez gero aspergarri izango litza-teke eta». Arratsaldeko 19:30ean hasiko da diaporama, Foronda kultur etxean.

eta eta Nazioarteko eskubidea'. Gaur, Zuzenbide Fakultatean, goizeko 11:30ean, Jose Juste Ruizen eskutik.

'Irakurri baino lehen irakurtzen'. Adin txikiko haurrengan

irakurzaletasunaren garrantzia azpimarratzeko. Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik.

Otsailaren 27an, 18:00etatik 19:30era, Okendo kultur etxean. Haurtzaindegia izango da. Otsailaren 23an, euskaraz emango da, Liburutegi Nagusian.

ELGOIBAR. 'Euskal Herriko Inauteri Herrikoia'. Gaur, 20:00etan, kultur etxean, Ion Tellabide etnologoaren eskutik.

ERRETERIA. Sexuari buruzko hitzaldia. Gaur, 20:00etan, Mikelazulon, Eli Olaskoaga eta Kotte Susperregiren eskutik.

'Evitar los problemas de la columna en la vida diaria'. Bihar, 18:00etan, San Agustin Elkartean, Michel Marmierren eskutik.

GERNIKA. Asisko Urmenetaren hitzaldia. Gaur, eguerdiko 12:00etan, kultur etxean.

'Idazketa eta irakurketa'. Bihar, 15:00etan, kultur etxean.

GETARIA. 'Conocer el cielo'. Gaur, Ander Souzaren eskutik, Alondigan, arratsaldeko 20:00etan.

IRUÑEA. 'Euskara eskubideak Nafarroan'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, UDC Txantrean, Koldo Ibañez eta Roldan Jimenoren eskutik.

'EHko hainbat proposamen hiriaren inguruan'. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Hizkuntz Eskolan, eztabaida-mahaia

LEKEITIO. 'Giza Mugimenduen papera eta desobedientzia zihila'. Otsailaren 23an, Pleno aretoan, Gesto por la Paz, KEM-MOC, Autoderterminazioaren Biltzarra eta Elkarriko kideen eskutik.

MUTRIKU. Inauteriei buruzko hitzaldia. Gaur eta bihar, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean, Fernando Rojoren eskutik.

OÑATI. 'Naturaren Mintzoa'. Gaur, Pello Zabalaren eskutik, arratsaldeko 19:00etan, Onatiko Natur Eskolan.

TAFALLA. Elkarriren Bake Konferentzia. Gaur, kultur etxean, Jonan Fernandezaren eskutik, 20:00etan.

ZARAUZ. 'Napoleon' obraren

inguruan. Gaur, Olerti Etxean, arratsaldeko 19:30ean.

ZUMAIA. 'Irtenbiderik ba ote dugu? Lizarrako Akordioa eta Su-etena'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Oxford aretoan, Joserra Gartzia eta Emilio Lopez Adanen eskutik.

bestelakoak

DONOSTIA. Rol lantegia. Otsailaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Martuteneko gaztelekuan.

Ipuin Kontaketa. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Loiola kultur Etxean.

ESKORIATZA. Kiko, Koko, Moko eta Flahs pailazoak. Bihar, arratsaldeko 17:00etan, plazan.

erakusketak

DONOSTIA. Antton Olariagaren marrazkiak. Arkitektura Fakultatean, otsailaren 27a arte, astelehenetik ostiralera.

ikastaroak

ZANGOZA. Haurrendako sormen-tailerra. 7-11 urte bñitarteko haurrei zuzendua. Martxoaren 3tik ekainaren 16ra. Larunbatetan 10:30etik 13:30era. Elena Erreta Almarzegiren eskutik. Vallesantoro Jauregian. Izen emateko Kultur Zerbitzura joan behar da, otsailaren 13tik martxoaren 2ra. Matrikularen salneurria 6.000 pezetakoa da.

lehiaketa

BASAURI. Ipuin Erotikoen VI. Lehiaketa. Euskarabila elkarteak antolatuta. Lanak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izango dira, DIN A4 orrietan tarte bikoitzean idatzita; gutxienez bi orri eta gehienez sei. Lanean lelo bat ipiniko da, eta kartazal itxi baten kanpoan lelo bera jarriko da; barruan egilearen datuak. Lan orijinala, hiru kopia eta egilearen datuak dituen sobrea beste sobra handiago batean sartuta honako helbidera bidali behar da: Euskarabila Elkartea, 146 posta kutxa, 48970 Basauri (Bizkaia). Lanak emateko azken eguna: apirilaren 20a.